

2009/6/23

EUSKARA DIGITALIZAZIOAREN GARAIAN

Josu Amezaga

Digitalizazioa berez kontzeptu teknikoa bada, ezin esan teknologiari soilik dagokion auzia denik. Teknologia guztien kasuan bezalaxe, baliabide tekniko hau testuinguru historiko eta sozial batean sortzen baita, testuinguru horren arabera definitutako behar batzuk asetzeko garatzen da, eta ondorio sozialak ditu. Hartara, edozeri buruzko informazioa sistema bitar batera igarotzea, fisikatik bezainbeste soziologiatik zein beste diziplina askotatik hausnartu beharreko gertaera da.

Komunikazioaren ikuspuntutik begiratuta, digitalizazioak aro berri bat ekarriko duela esan daiteke. Ez noski berak bakarrik, testuinguru horrekiko dialektikan baizik. Konparazioak gaiztoak badira ere, esan dezagun idazkuntzaren jaiotza nekazaritzaren hedapenari, elkartrukearen garapenari eta hirien sorrerari ezinbestean lotuta egon zela. Milaka urte beranduago, inprentaren hedapenak zerikusia izan zuen modernitatearen edota estatu nazioen eraketan. Gaur egun, digitalizazioa ezin da deslotu munduan gertatzen ari diren aldaketa sozial, ekonomiko, politiko zein kulturaletatik. Ondorioei dagokienez, etorkizun hurbilean digitalizatzen ez diren kulturak aurreko aldaketetan idazkuntzara edota inprentara iritsi ez zirenen antzera geratuko dira: beren garapenerako zailtasun handiekin alegia. Eta beti ere honako hau hartu beharrean gaudelarik: gaur egungo jendarteak aldaketarako duen abiada sekula baino azkarragoa da, maila guztietan.

Digitalizazioarekin batera datozen aldaketek erronka berriak planteatuko dizkie euskal kulturari eta euskarari. Horietaz mintzatuko gara gure hitzaldian, telebistaren kasuan fokatuta. Medio hau aukeratu izanaren arrazoiak honakoak dira: batetik, ondoen ezagutzen dugun medioa da; bestetik, beste hizlari batzuek jorratu(ko) dituzte, zuzenean edo zeharka, digitalizazioarekikoak beste arlo batzuetan. Azkenik,



telebistaren inguruan oso modu nabarmenean ikus daitezke digitalizazioak bultzatuta gertatzen ari diren aldaketak.

Digitalizazioa telebistan

Eskaintza

Digitalizazioaren alderdi ezagunetako bat, telebistaren arloan, eskaintzan gertatzen ari diren aldaketak dira. Batetik kanal kopurua biderkatu egiten da modu izugarrian. Bestetik gaikako telebistaren eskaintza handitzen da, orotariko telebistaren ereduaz haratago. Horrela, euskarazko telebistak ikusleak erakartzeko lehen urteetan bizpahiru eta geroago bospasei kanalekin lehiatu behar bazen, gaur egun dozenaka kanal ditu lehiakide. Gainera, lehenagoko lehiakide guztiak eredu berekoak izanik (orotarikoak), kanal bakarrak egin ahal zien aurre; gaur egun pentsaezin bihurtu da, ordea, euskarazko telebistak eredu guztietan (gaikako kanalak adibidez) lehiatzeko beste kanal izan dezakeenik.

Horrekin batera, enpresa egitura ere aldatuz doa, agente berriak eremu honetara sartu direlarik. Talde handi berriak, batetik, eta komunikazio talde txiki zein tokikoak, bestetik.

Euskarazko eskaintza ere handitzen ari da, bestalde, digitalizazioarekin. Euskarazko ETB3 hor dago, eta laster ETB4 elebiduna izan liteke. Bestetik, tokiko telebista digitalen dekretuaren ondorioz kanal berriak sortuko dira hemendik gutxira euskara hutsez, eta ezarritako kuotak betetzen badira, gainerako kanalek eskaintzaren zati garrantzitsu bat euskaraz eman beharko dute.

Euskarriak



Digitalizazioak edozein informazio itzultzen du 0 eta 1 digituetara. Hartara, irudiak, soinuak zein idatzizko hizkuntza euskarri berberetatik garraiatzen dira. Honen ondorioetako bat, XX. mendean zehar bereizita egon diren prentsa, irratia eta telebistaren arteko mugak lausotzea da, medio berriak sortuz (multimedia). Halaber, telebista aparailua eta ordenagailuaren arteko bateratzea gertatzen ari den zerbait da, eta aparailu berriak sortzen ari dira, digitalizatutako seinaleak (irudia, soinua zein testua) erreproduzitu ditzaketenak: sakelako telefonoa zein mp4 erako tresnak horren adibide.

Halaber, euskarri berriak garatzen dira seinale digitalizatuen garraiorako: lur gaineko uhinez gain, satelitea, kablea edota ADSL sistema esaterako. Hauen arteko konbinazioak, bestalde, orain arteko telebistak zailago zuen aukera bat ireki dute: interaktibotasuna, edo ikuslearen parte-hartzea.

Aldaketa horiei jarraiki formatu berriak sortzen ari dira, oraingoz “telebista” deitzen dugun ikus-entzunezko medio horretan: sakelako telefonoetarako saioak (irudi kalitate txikikoak eta oso denbora laburrekoak), podcastak, egunkari digitaletako bideo irudiak, saio interaktiboak, e.a.

Ikusteko erak

Orain arte aipatutako aldaketek telebista ikusteko era berriak zabaldu dituzte. Hamarkadetan zehar eredu nagusi izan dena (familia osoa telebista aparailuaren aurrean, kanal gutxi batzuek eskaintzen zutena jasotzeko prest) gero eta ahulagoa da, eta gero eta arruntago bilakatzen ari da ikuslearen aukeraketa aktiboa: kanal gehiagoren artean hautatzeko aukera, gordailu batean bilduta dauden saioak eskuratzeko bidea (bideoklub digitalak), etxeko egongelan barik nor bere gelan eta bere aparailuan jasotzeko aukera, eta abar.

Ikuslea lehen baino autonomoagoa den telebista ikusteko era honek euskararen kasuan zein ondorio izango duen jakiteke dago. Horretaz hausnartzeko, ez da baztertu beharreko datua honako hau: euskaldunen kopuruaren hazkundera, neurri handi batean, eskolak eragina denez, gaur egungo euskaldunen ia erdiak familia linguistikoki mistoetan bizi da, alegia, euskarazko telebista jarraitzeko gai direnak eta gai ez direnak nahastuta.

Hizkuntzen trataera

Baliabide tekniko berriek hizkuntza beste modu batean erabiltzea ahalbidetzen dute. Horrela, batetik, telebista emanaldi batean hizkuntza ezberdinetako azpituduluak eskain daitezke, ikusleari aukera emanez, bata, bestea zein bat ere ez erabiltzeko. Bestetik, audio banda ezberdinak ere eskain daitezke, ikuslearen esku utziz saioa zein hizkuntzatan entzungo duen.

Honek aukera berriak dakartza, zer esanik ez, familia mistoentzako zein euskara oso ondo menperatzen ez dutenentzako telebista diseinatzean. Baina aldi berean, honako galdera egitera garamatza: noraino esan ahal izango dugu, hemendik urte gutxira, delako kanala “hizkuntza batean edo bestean” dela?

Copyrightaren auzia

Musika eta zinema ekoizleek ondo baino hobeto dakite digitalizazioa noraino aldatzen ari den beren industria. Kopia analogikoak ez bezala, kopia digitalak ez du kalitaterik galtzen, eta mugagabeki zabal daiteke.

Honek banaketa sistema merkatzen du, batetik; baina orain arteko industria sistema kaltetzen. Euskararentzat hau noraino aukera eta norainoko mehatxua den, hausnartu beharra dago.



Ondorio batzuk hizkuntza politikoari dagokionez

Euskararen aldeko hizkuntza politika bat garatu nahi izatekotan, joko zelaia asko aldatzen du digitalizazioak. Izan ere ETB sortu zenean, zalantza gutxi zegoen telebistak hizkuntzaren berreskurapenerako izan behar zuen garrantziaz (nahiz eta garrantzi hori oraindik enpirikoki gehiegi ez den inoiz justifikatu). Gaztelerazko zein frantsesezko telebistaren sarrerak Euskal Herrira ekarri zuen eragin linguistikoa gogoan, alderantzizko prozesuarekiko konfiantza zegoen (hots telebistaren bidez euskara etxe guztietara sartzea), eta posiblea ikusten zen, muturrera eramanda, linguistikoki homogeneoa izango zen telebista-lurralde bat irudikatzea, euskarazko medio publikoak bultzatuz eta medio pribatuak horretara behartuz. Gaur egun ordea, hori lehen baino utopikoagoa dela dirudi. Gauzak horrela, hizkuntz politika egin behar duten erakundeek modu berriak bilatu beharko dituzte, digitalizatutako kulturaren euskararen garapena bermatzeko.

Bestetik, digitalizazioak agente berriak ekarri ditu telebistaren eremura: enpresa egitura berrietatik hasi, ikusle-ekoizleenganaino (youtube erako produktioak). ETBren sorreran zeuden agente bakarrak administrazioa eta enpresa pribatuak soilik izan zitezkeen telebistagile, baina gaur egun abaniko hori zabaltzen ari da. Bere ibilbide historikoa botere politikoari zein merkatuari baino gehiago herri ekimenari zor dion hizkuntza batentzat, egoera berri hau aberasgarri bilakatzea, erronka handienetako bat dugu gaur egun.